

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Ordu eta erdiko gudontzidia

DAVID COBB



Donostia boua
Matxitxakoko itsas
gatazkan, 1937ko
martxoan. Hilabete
batzuk lehenago
ontzia frankista zen
eta *Virgen del*
Carmen zuen izena.

BILBO, 1936KO ABENDUAREN 6A. *Virgen del Carmen* bou frankistaren tripulazioa matxinatu egin zen, eta ontzia portuan sartu zuten. Pasaiaiko Flotako ontzia bezperan atera zen basetik. Gauerdi inguruan guardiako kaboek komandantea lotu zuten lehenik, eta bi makinariak ondoren. Tripulazioko gainerako kideek bat egin zuten kaboek asmoekin, eta ontzia Bilbora eraman zuten. Brankako kanoia aldatu, ontzia *Donostia* izenaz bataiatu eta, hala, Euzkadiko Gudontzidiak bere lehen boua lortu zuen.

Urte hartako urrian erabaki zuen Jose Antonio Agirre lehendakariak Defentsa Sailaren baitan Itsas Saila sortzea. Departamendu berria urriaren 25ean hasi zen jardunean, Itsas Armada Errepublikanoari lagunduko zion flota osatzeko. Ontzidi xumeak ez zuen itsas guduetan zuzenean sartzeari xede; arrantza babesteko, eskumeneko uretako nabigazio askea zaintzeko, eta euskal portuetako sarrerak inolako oztoporik gabe mantentzeko sortu zuten.

Bou edo arrantza-ontzi armatuak izan ziren ontzidiaren funtsa, eta lehen, *Donostia*, ezustean lortu zuten abendu hasiera hartan. Hilaren 9an

zenbait bakailao-ontziri izenak aldatzea erabaki zuten: *Hispania*, aurretik *Araba* izango zen; *Euzkal-Erria*, berri, *Bizkaia*; *Mistral*, *Gipuzkoa*, eta *Vendaval*, azkenik, *Nabarra*. Horiei *Goizeko-Izarra* eta *Iparreko-Izarra* ontziak erantsita, 1937ko urtarrilaren erdialdean, euskal itsas armada zazpi bouk osatzen zuten. Eta talaia nahiz zelatari zerbitzuak antolatzen hasi ziren zortzi minaketariz eta beste hamar ontzi txikiagoz lagunduta. 900 bat lagun aritu ziren itsas armada berezian.

Martxoaren 5ean, *Canarias* gurutzeontzi frankista *Galdames* merkataritza ontzia atzematen saiatu zen Matxitxako lurmuturretik hurbil. Baina euskal bou txikiak ontzi zibila babesten ari ziren. *Canarias* izan zen tiro egiten lehena. *Gipuzkoa* jo zuen lehenik, *Donostia* gero, baina biek ihes egitea lortu zuten. *Nabarra*-k, ordea, ez zuen amore eman, eta azkenean frankisten artilleriak hondoratu zuen. Matxitxakoko gatazka galdu zuten, baina ezin esan euskal itsas armada ofizial bakar hura etsaien aurka borrokatu ez zenik. Ordu eta erdiz behintzat.



Arrastoak

Charles De Gaulleren 300 gutun eman dituzte argitara

PARISKO Gutun eta Eskuizkribu Museoak orain arte argitaratu ez diren Charles De Gaulleren 300dik gora eskutitz ipini ditu bisitarien eskura. Bigarren Mundu Gerrakoak dira, De Gaulle Alemania naziaren aurkako indar frantziarren buru zen garaioak.

Museoko arduradunen esanetan, De Gaullek uste zuen munduaren aurka borrokan bakarrik ari zela, jeneralak eskuz idatzitako testuek adierazten dutenez. Gainera, gutunotan, AEB gogor kritikatu zuen, bere ustez potentziak ez zuelako ahal zuen guztia egiten alemaniarrek mendean hartzeko. Sobietar Batasunaren ahalaginak, aldiz, goraipatu egin zituen.



AEBKO GERRAKO INFORMAZIO BULEGOA

Charles De Gaulle 1942. urte inguruan, argitaratu berri diren gutunak idatzi zituen garaian.